

EUSKO JAURLARITZA

LURRALDE ANTOLAMENDU,  
ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE ORDENACION DEL  
TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

LURRALDE ANTOLAMENDU,  
ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO  
SAILAREN

ETA

GETXOKO UDALAREN ARTEKO  
LANKIDETZA HITZARMENA

GAIA: LANKIDETZA-AKORDIOA,  
UDALAREN ETXEBIZITZA  
SUSTAPENETAN ETXEBIDE-EUSKAL  
ZERBITZUA ERABILTZEKO

DEPARTAMENTO DE ORDENACION DEL  
TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO  
AMBIENTE

Y

AYUNTAMIENTO DE GETXO

ASUNTO: ACUERDO DE  
COLABORACION PARA LA  
UTILIZACION DEL SERVICIO VASCO DE  
VIVIENDA -ETXEBIDE EN LAS  
DIFERENTES PROMOCIONES DE  
VIVIENDAS MUNICIPALES



Vitoria-Gasteizen, 2000ko apirilaren  
3an.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de  
2000

**BILDURIK**

**ALDE BATETIK**, Francisco José  
ORMAZABAL ZAMAKONA jauna,  
Eusko Jaurlaritzako Lurralde  
Antolamendu, Etxebizitza eta  
Ingurugiro Sailburua

**ETA BESTETIK**, Iñaki ZARRAOA  
ZABALA jauna, Getxo Udaleko  
Alkate Lehendakaria

**AGERTU DIRA**

Lehena, Eusko Jaurlaritzako Lurralde  
Antolamendu, Etxebizitza eta  
Ingurugiro Sailburua den aldetik eta,

Bigarrena, Getxo Udaleko Alkate  
Lehendakaria den aldetik.

Biek aitortzen diote elkarri lankidetz  
hitzarmen hau izenpetzeko behar  
adinako legezko gaitasuna, eta  
honako hau

**ADIERAZTEN DUTE**

**LEHENIK** - Bi administrazioen  
asmoa da herritarrei bideak erraztea  
erakundeek eskaintzen dituzten  
baliabideez baliatzeko, eta zerbitzuen  
arteko nahasmendua eta eskaintza  
bikoiztasunak galaraztea.

**REUNIDOS**

**DE UNA PARTE**, D. Francisco José  
ORMAZABAL ZAMAKONA,  
Consejero de Ordenación del  
Territorio, Vivienda y Medio  
Ambiente del Gobierno Vasco.

**Y DE LA OTRA**, D. Iñaki  
ZARRAOA ZABALA, Alcalde-  
Presidente del Ayuntamiento de  
Getxo.

**COMPARECEN**

El primero, en calidad de Consejero  
del Departamento de Ordenación del  
Territorio, Vivienda y Medio  
Ambiente del Gobierno Vasco

Y el segundo, en su calidad de  
Alcalde-Presidente del Ayuntamiento  
de Getxo.

Ambos comparecientes se reconocen  
capacidad legal suficiente y necesaria  
para otorgar el presente Acuerdo de  
Cooperación, y a tal efecto:

**EXPONEN**

**PRIMERO.**- Es voluntad de ambas  
Administraciones facilitar el acceso  
de los/las ciudadanos/as a los recursos  
institucionales, evitando  
disfuncionalidades y duplicaciones en  
la prestación de los servicios.



**BIGARRENIK** - Horretarako, eta beti ere administrazioetako bakoitzak dituen eskumenen norainokoak errespetatuz, honako hau

**ERABAKI DUTE**

**LEHENA** - Etxebizitzari buruzko Informaziorako Getxoko Udaleko eta ETXEBIDE-Euskal Etxebizitza Zerbitzuko etxebizitza eskatzaileen datu-biltegiak bateratzea, elkarri erabateko aukera emateko batean eta bestean bildutako datuez baliatzeko.

**BIGARRENA** - Etxebizitza eskatzeko prozedurak erraztea. Horretarako, eskatzaileen zerrenda Etxebideren datu biltegian taxutuko da aurrerantzean, erakunde horri laguntzen dioten bulegoetatik nahiz Udaletik jasotako datuak biltzen direlarik.

**HIRUGARRENA** - Etxebizitzak esleitzeko prozedurak berdintzea. Horrenbestez, bateratutako biltegietan ageri diren datuak baliatuz aukeratutako dira esleipendunak, sustatzen dituen etxebizitzak esleitzeko erakunde bakoitzak ezartzen dituen irizpideak aintzat harturik.

**LAUGARRENA** - Uneoro errespetatzea erakundeetako bakoitzaren autonomia; hortaz, zeinek bere identitatearik eutsiko dio eskatzaileei nahiz esleipendunei igortzen dizkion eskutitzetan-eta, baita bideratzen dituen informazio prozeduretan ere

**SEGUNDO** - A tal fin y respetando siempre los niveles competenciales de cada una de las Administraciones implicadas

**ACUERDAN**

**PRIMERO** - Integrar las bases de datos de demandantes de vivienda del Ayuntamiento de Getxo y el Servicio Vasco de Vivienda-ETXEBIDE, ofreciéndose recíprocamente pleno acceso a los datos contenidos en ellas

**SEGUNDO** - Simplificar los procesos de solicitud de viviendas, para lo que el listado de solicitantes se llevará en lo sucesivo en la base de datos de ETXEBIDE, nutriéndose desde las oficinas colaboradoras de esta institución ó desde el propio Ayuntamiento de Getxo.

**TERCERO** - Homogeneizar los procesos de adjudicación de viviendas, para lo que la selección de adjudicatarios/as se realizará a partir de los datos que obren en las bases unificadas, conforme a los criterios que cada institución establezca para la adjudicación de las viviendas que promueva.

**CUARTO** - Respetar en todo caso la autonomía de cada una de las instituciones que mantendrán su propia identidad en las comunicaciones que dirijan a solicitantes y/o adjudicatarios/as, así como en los procesos informativos que puedan realizar.



**BOSGARRENA.-** Eskumena aitortzea Getxoko Udalari etxebizitza eskatzaileei eskatu beharreko baldintzak finkatzeko, baita etxebizitzak esleitzeko ere

Eta adostasunaren eta fede onaren erakusgarri, agiri honen lau ale izenpetu dituzte, goian adierazitako lekuan eta egunean.

**QUINTO.-** Reconocer la competencia del Ayuntamiento de Getxo para establecer los requisitos exigibles a los/las demandantes de vivienda, así como realizar la adjudicación de las mismas.

Y en prueba de conformidad y buena fe, firman el presente documento por cuádruplicado ejemplar, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento

**LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILBURUA**

**EL CONSEJERO DE ORDENACION DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE**

Izta / : Fdo : Francisco José ORMAZÁBAL ZAMAKONA

**GETXOKO ALKATE-UDALBURUA**

**EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO**

Izta / Fdo · Iñaki ZARROA ZABALA